



A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ezohiko bilkurarena,

2020ko urriaren 8koa

Arespalditzako Aiarako Kuadrillaren egoitzan, **13:18ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ezohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)
Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)
Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du honako jaun batzarkide honek:

Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Escuza jauna bilkurara sartu da 13:28an, eta gai-zerrendako 5. puntua aztertzen hasiko da.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gianfranco Ghiri sustapen ekonomikoko teknikaria ere bertaratu da dagokion saileko puntuak azaltzera.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 13:18an**, osoko ezohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985



Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2020-09-23ko bilkuraren akta onestea.

2.- KUADRILLA DEMANDATU GISA AZALTZEA JURISDIKZIO-BABESEKO 545/2020-A AUZI-ERREKURTSOAN

Jakinarazi da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko 3. zenbakiko Epaitegiak Aiarako Kuadrillari egindako epatzearen sarrera erregistratu zela, jurisdikzio-babeseko 545/2020-A auzi-errekurtsoan, uztailaren 28ko 52/2020 Presidentetzaren Dekretuaren lehen eta bigarren erabakien aurka. Ebazpen hori eman zen OMNIA, AIARA BATUZ ETA OKONDO AURRERA Batzarkide Talde Politikoetako batzarkideek jarritako aurretiazko berraztertze errekurtsuari erantzuteko.

Antolaketa-eginbidearen bidez, epaitegi horrek Kuadrillari agintzen dio hartu-agiria bidaltzeko, administrazio-espeditentea bidaltzeko (egintza horren bidez, administrazioa epatutzat joko da) eta aurkibide orrikatua bidaltzeko.

EKAIN abokatuen bulegoarekin harremanetan jarri da auziaren defentsa letratua egin dezan, eta irailaren 25eko 59/2020 Presidentetzaren Dekretuaren bidez, 545/2020-A auzibidean pertsonatzea onetsi zen, abokatuen defentsa eta prokuradoreen ordezkariatza izendatuz.

Defentsa letraduaren AURREKONTUA: lehen auzialdian, 2.500 euro gehi 525 euroko BEZa, guztira 3.025 euro (prokuradorearen ordainsariak aparte), eta bigarren auzialdian, 1.500 euro gehi 315 euroko BEZa, guztira 1.815 euro (prokuradorearen ordainsariak aparte).

Interesdun izan daitezkeenak epatu dira (gainera Batzarkide Talde Politikoetako bozeramaileak) eta irailaren 28an dokumentazio guztia bidali beharko dute; izan ere, jarduketa horiek guztiak epaitegiak emandako 5 egun balioduneko epearen barruan gauzatzat ematen dira, eta epaitegiak horretarako emandako epe laburrerako ezarritako presa irailaren 25eko 59/2020 Presidentetzaren Dekretuaren bidez onetsi zen, epatzea eta aipatutako errekurtsoan pertsonatzeko onesten da, bai eta defentsa letradua EKAIN bulegoko abokatuei ahalduntzea eta prokuradorean izendatzea ere.

Irailaren 25eko 59/2020 Presidentetzaren Dekretuaren jakinaren gainean geratu dira. Dekretu horren bidez, epatutzat jotzea eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko 3.



zenbakiko Epaitegian jurisdikzio-babeseko 545/2020-A auzi-errekurtsoan pertsonatzea onetsi da. Epatutzat emanda eta epaitegian pertsonatzea JON ANDA abokatuaren eta EKAIN abokatuen bulegoko gainerako profesionalen eta 2018an auzibidea defendatzeko emandako ahalordean agertzen diren prokuradoreen alde ahaldunduta, defentsa letradua egiteko, honako kostu honekin: lehen auzialdian, 2.500 euro gehi 525 euroko BEZa, guztira 3.025 euro (prokuradorearen ordainsariak aparte), eta bigarren auzialdian, 1.500 euro gehi 315 euroko BEZa, guztira 1.815 euro (prokuradorearen ordainsariak aparte).

Era berean, jakinarazi da urriaren 5ean jakinarazi zela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegian bertan CESPASA merkataritzasozietatean administrazioarekiko auzi-errekurtso arrunta jarri zuela, 583/2020-A, 2020-07-01eko Tokiko Gobernu Batzordearen egintzaren aurka. Horren bidez, ez da onetsi CESPASA 2019ko maiatz-abenduko fakturak ez ordaintzeagatik berandutza-interesak eta kobrantza-kostuak eskatzeko egindako alegazioa. Aurrekontua eskatu zaio Umeren abokatu jaunari, eta hark egin ditu espedientearen txosten juridikoa. Hona hemen aurrekontua:

Abokatuaren ordainsariengatik, HIRU MILA EURO (3.000,00 €) gehi BEZa proposatzen dira. Era berean, Luis Pablo López-Abadía Rodrigo prokuradorearen ordainsarien proposamena lortu da, hark lehen auzialdi osoagatik SEIEHUN EURO (600,00 €) gehi BEZa proposatu ditu. Prokuradoreak aparteko faktura egingo du. Zenbateko horietan ez dira sartzen gastuak edo behar bezala ordeztutakoak, ez eta beste profesional batzuek peritu gisa parte hartzeari dagokion ordainsariak ere. Edozein arrazoiengatik, enkarguan zehar, aurrekontua aldatu beha dela ondorioztatzen bada, aldaketaren berri eman beharko zaio bezeroari, eta hark idatziz onetsi beharko du.

Eztabaida laburra bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Epatutzat ematea eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegian izapidetzen den jurisdikzio-babeseko 545/2020-A auzi-errekurtsoan pertsonatzea. Aiarako Kuadrillaren izenean jardun dezaten, honako abokatu hauen alde ahalduntzea: ESTEBAN UMEREZ ARGÍA, CARLOS AIS CONDE, JAVIER CORTÁZAR LARRACOECHEA eta FÉLIX MERCADO GARRIDO, eta prokuradoreen alde LUÍS PABLO LÓPEZ-ABADÍA RODRIGO, PATRICIA SÁNCHEZ SOBRINO, JUAN USATORRE IGLESIAS eta NAIA ALTUNA SERRANO.

Abokatuen bidezko zerbitzuaren kostua HIRU MILA EUROKO da (3.000,00 €) gehi BEZa, eta prokuradoreena SEIEHUN EUROKO (600,00 €) gehi BEZa, lehen auzialdi osoagatik. Prokuradoreak aparteko faktura egingo du. Zenbateko horietan ez dira sartzen gastuak edo behar bezala ordeztutakoak, ez eta beste profesional batzuek peritu gisa parte hartzeari dagokion ordainsariak ere.

BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillaren ordezkari gisa jardutea, erreferentziako judizioan Kuadrillaren interesak behar bezala defendatzeko behar diren jarduketa guztiak gauzatzeko, aipatutako profesionalen alde Auzietarako Botere Orokorra ematea.



HIRUGARRENA.- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak ezarritako aginduak betetzea, erakunde honi egindako jakinarazpenetan oinarrituta, interesdunei jakinarazpenak egiteari, espedienteak bidaltzeari, lotutako beste errekurtsio batzuk jakinarazteari eta gainerakoei dagokienez, horretarako ezarritako lege-betekizun guztiak betetze aldera.

3.- LANKIDETZA-HITZARMENA AFarekin, 2020an OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK FINANTZATZEKO

Aurreko bilkuran jakinarazi zen moduan, Aiarako Kuadrillako oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko lankidetzaz hitzarmena jaso da, sinatzeko, Hitzarmen horren 2019. eta 2020. urteak finantzatzeko dituzte.

Bilkuraren deialdiarekin batera, 2020an AFarekin gizarte-zerbitzuak finantzatzeko lankidetzaz hitzarmena erantsi zen, hori aztertzeko.

Ondoren, Ghiron jaunak eragindako alkateei azaldu die nola eragingo dien eta nola egokituko diren zerbitzu horren eskaerak Aiara, Artziniega eta Okondoko udaletan.

Informazioa eta eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea AFarekin 2020rako lankidetzaz hitzarmena, Aiarako Kuadrillako oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko.

4.- SUSTAPEN EKONOMIKOKO SAILA: AIARAKO KUSDRILLAREN KONTRATAZIOARAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK, LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN – ENPLEGU SUSTAPENEN TOKIKO EKINTZEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN ESPARRUAN, EHAAn ARGITARATUTAKOAK, 127. ZENBAKIAN, 2020ko EKAINAREN 30ean

Bilkuraren deialdiarekin batera, onesteko aurkeztu den Oinarri Arautzaileen zirriborroa erantsi zen **III. ERANSKIN** gisa, hori aztertzeko.

Horien edukia eta eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan Aiarako Kuadrillak eman



beharreko kontrataziorako laguntzen oinarri arautzaileak (220ko ekainaren 30eko EHAAn argitaratua, 127. zk.)

BIGARRENA.- Oinarri hauetan eremua aldatzea. Hortaz, Aiarako Kuadrilla esaten denean, ulertu behar da Aiarako Kuadrillarako eta Urduñako Udalerako dela.

Une honetara iritsita, aho batez **ADOSTU DA** bilkurako gai-zerrenda aldatzeko, bilkura-deialdiaren 7. puntua 5. puntua izan dadin.

Une honetan, Escuza jauna sartu da bilkurara 13:28an, eta gai-zerrendako 5. puntua aztertzen hasiko da.

5.- KUADRILLAKO WEBGUNEA MANTENTZEKO ZERBITZUA HANDITZEA

GUREAK enpresarekin Kuadrillako webgunea mantentzeko kontratua handitzea proposatzen da, eta albisteak kudeatzeko zerbitzua webgunean sartzea.

Enpresak eskaintza hau aurkeztu digu:

Gehienez ere 96 berri urtean 1.440 €/urteko (BEZik gabe)

Gehienez ere 72 berri urtean 1.080 €/urteko. (BEZik gabe)

Zerbitzuen edukari eta premiei buruz eztabaidatu da.

Eztabaida bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea Kuadrillako webgunea mantentzeko kontratua handitzea, albisteak kudeatzeko zerbitzura, urtean 1.440 euroko kostuarekin, gehi BEZa, eta gehienez ere 92 berri.

6.- BERDINTASUN SAILA: 2020ko EMAKUMEEN ESKUALDEKO TOPAKETARAKO JARDUERAK

6.1.- EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO TAILERRAK KONTRATATZEA

Presidente andreak azaldu du informazio-batzordeak irailaren 30ean egindako bilkurara joateko gonbita egin ziotela, eta, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 25ean hartutako erabakiaren arabera, Arabako Foru Aldundiari berdintasun-jardueretarako



laguntza ekonomikoa eskatzeko, 2020ko Berdintasunerako Eskualdeko Topaketa egitea erabaki da. Aurten, osasun-egoera dela eta, topaketa birtuala izango da, eta, beraz prestakuntza-tailer presentzialak antolatuko dira, emakumeek topaketan parte har dezaten errazteko. Horretarako, eta Kuadrillako emakumeei zuzentzeko helburuarekin, aurrekontuak eskatzen zaizkie honako enpresa hauei:

Jasotako eskaintzak honako hauek dira:

Enpresa	Erregistro-zenbakia
Alara	Zk. 665 2020ko irailaren 8koa
Red Quorum	Zk. 673 2020ko irailaren 15ekoa

Tailer horiek prestatzeko eta emateko proposamenak aztertu ondoren, haren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira jarraian:

Enpresa	BEZik gabeko prezioa	Ezaugarriak
<i>Alara</i>	790,00 €	Teknologiari buruzko bost tailer, bakoitza 2 orduko proiektorearekin. 158 € x 5= 790,00 € BEZik gabeko irakaskuntza, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikulua 10. zenbakiaren arabera.
<i>Red Kuorum</i>	2.450,00 €	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aiaraldeko mugimendu asoziatiboaren trebakuntza eta esperientziak jasotzeko 7 lantalde egitea. Emakumeen elkarte bakoitzeko saio bat egingo da: 1 Aiaran, Artziniegan, Okondon eta Amurrion, eta 3 Laudion. <ol style="list-style-type: none"> a. Aiaraldeko mugimendu asoziatiboari prestakuntza ematea online parte hartzeko oinarrizko gaitasun teknologikoetan: WhatsApp bidezko bideokonferentzia eta Zoom aplikazioaren erabilera telefono eta helbide elektronikoko bidez. b. Parte-hartzaileen esperientziak jasotzea: <ol style="list-style-type: none"> i. COVID-19aren aurretik teknologiarekiko harremana. ii. Teknologien funtzioa konfinamenduan. iii. Zer galdu da eta zer irabazi da teknologiari esker? c. Teknologia berdintasun-politiketan duen funtzioa aztertzea eta definitzea “normaltasun berrian” eta



		<p>Covid-19a osteko normaltasunean.</p> <ol style="list-style-type: none">i. Zer eman diezaguke?ii. Nola erabil dezakegu? Erabilera atsegineko eskuliburua. <p>Lan-dinamikak alderdi teorikoa eta praktikoa izango ditu, parte-hartzaileen esperientzietan oinarritutako metodologia parte-hartzailearekin. Parte-hartzaile bakoitza bideokonferentzia baten hartzaile eta deitzaile izan dadin bilatuko da, bi bideetako bakoitzeko.</p> <ol style="list-style-type: none">2. Emaitzen araberako prestakuntza ematea azaroaren 6an egingo den Eskualdeko topaketan.3. Ikus-entzunezko prestakuntza-materiala egitea. BEZik gabeko irakaskuntza, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikulua 10. zenbakiaren arabera.
--	--	--

Aiarako Kuadrillak, zerbitzu honen bidez, emakumeak teknologia berrietan trebatu nahi ditu, modu aktiboan parte hartzen jarrai dezaten, eta ikusita jasotako bigarren eskaintzak helburu guztiak biltzen dituela, ez bakarrik tailerrei dagokienez, baita aurtengo Berdintasunerako Eskualdeko Topaketari dagokionez ere, eta eskaintza osoa denez, hori egiteko behar den guztia barne hartzen baitu, **zerbitzu hori Red Kuorum enpresari esleitzea proposatzen da, 2020ko irailaren 30ean egindako bilkuran, aho batez emandako txosten teknikoan ezartzen den moduan, 2.420,00 euroko zenbatekoagatik (BEZik gabe).**

Jarduera horrek % 90eko foru-laguntza du. Gainerako % 10a udalerriek emango dute dirulaguntza.

Eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Berdintasunerako Eskualdeko Topaketan tailerrak prestatzeko eta emateko zerbitzua RED KUORUM enpresari esleitzea, 2.420,00 euroko zenbatekoagatik (BEZik gabe).

6.2.- BERDINTASUNERAKO ESKUALDEKO TOPAKETAREN ONDORIOETARAKO JARDUKETA BAT KONTRATATZEA



Presidente andreak azaldu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 25ean hartutako erabakiaren arabera, Arabako Foru Aldundiari berdintasun-jardueretarako laguntza ekonomikoa eskatzeko, 2020ko Berdintasunerako Eskualdeko Topaketa egitea erabaki da. Aurten, tokapeta birtuala izango da, eta amaitzean, topaketaren ondorioak umoretik eta modu ludikoan jasoko dituen jarduketa behar da. Horretarako, aurrekontua eskatu zaio Virginia Imaz artistari, EAEn horrelako emanaldiak egiten espezializatuta dagoen *clown* bakarra baita. Honako hau da jasotako eskaintza:

Enpresa	Erregistro- zenbakia
Oihulari Klown	Zk. 701 2020ko irailaren 30ekoa

Aipatutako jarduketarako proposamena aztertu ondoren, haren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira jarraian:

Enpresa	BEZik gabeko prezioa	Ezaugarriak
<i>Oihulari Klown</i>	750,00 €	Azaroaren 6ko Berdintasunerako Eskualdeko Topaketaren ondorioei buruzko jarduketa. % 10eko BEZa.

Aiarako Kuadrillak, zerbitzu honen bidez, aurtego Eskualdeko Topaketa amaitu nahi du, eztabaidatutakoaren ondorioak jasotzen dituen jarduketa baten bidez. Hori dela eta, **zerbitzu hori Oihulari Klown enpresari esleitzea proposatzen da, 2020ko irailaren 30ean egindako bilkuran, aho batez emandako txosten teknikoan ezartzen den moduan, 750 euroko zenbatekoagatik, gehi BEZaren % 10a; guztira, 825, 00 euro.**

Jarduera horrek % 90eko foru-laguntza du, berdintasunerako jardueretarako. Gainerako % 10a udalerriek finantzatuko dute.

Eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Emakumeen Eskualdeko Topaketaren ondorioen zerbitzua VIRGINIA IMAZ (**Oihulari Klown**) profesionalari esleitzea, 750 euroko zenbatekoagatik, gehi BEZaren % 10a; guztira, 825, 00 euro.

7.- EUSKARA SAILA: IVAPekin LANKIDETZA-HITZARMENA, PRESTAKUNTZA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIORAKO

Presidente andreak jakinarazi du, hitzarmen honen xedea dela, besteak beste, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Aiarako Kuadrillaren arteko harreman juridikoa ezartzea, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritako aplikatzeari dagokionez. Agindu horren bidez, batetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eskainiko dien hizkuntza-gaikuntzaren zerbitzua arautzen da. Bestalde, euskara-ikastaroetara joaten diren udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzak erregulatzeko arauak ezartzen dira.



Aurreko klausulan aipatzen den harreman juridikoak honako jardunketa-eremu hauek izango ditu:

- Euskalduntzeko/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizuneko hizkuntza-gaikuntzarako ikastaroak antolatzea.
- Euskara-ikastaroetara doazen langileak ordezteko dirulaguntzak (udal-administrazioentzat soilik).
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala prestatzea eta erabiltzea.

Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, 2020ko urriaren 2tik aurrera, alderdietako batez berariaz salatzen ez badu.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, aurrerantzean hitzarmenak ez dira automatikoki luzatuko, berariaz berritu edo luzatu beharko dira la urtean behin, eta hitzarmena berritzen denean, lau urte igaro beharko dira lege hau indarrean sartzen denetik.

Erabili den hitzarmen-eredu bera erabiliko da. Deialdiarekin batera, IVAPek proposatutako lankidetzazko hitzarmenaren eredu erantsi zen, hori aztertzeko.

Eztabaidarik sortu ez denez, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea IVAPen eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetzazko hitzarmena luzatzea. Lau (4) urteko iraupena izango, 2020ko urriaren 2tik aurrera, eta honako jarduketa-eremu hauetan egongo da indarrean:

- Euskalduntzeko/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizuneko hizkuntza-gaikuntzarako ikastaroak antolatzea.
- Euskara-ikastaroetara doazen langileak ordezteko dirulaguntzak (udal-administrazioentzat soilik).
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala prestatzea eta erabiltzea.

8.- PRESIDENTETZAK BILKURA HOEN EZOHIKO IZAERARI BURUZKO AZALPENA EMATEA, ETA ORGANO HONETAKO KIDEEK HELARAZI NAHI DIZKIOTEN GAIEI ERANTZUTEA

Presidente andreak bilkura honen ezohiko izaera azaldu du; izan ere, parte hartzen duten teknikarietako bik, horien artean idazkariak, prestakuntza-jardunaldia dute urriaren 6an eta 7an, eta, beraz, bilkura hori egiteko eguna aldatu behar izan da. Aurreko bilkurak ere ezohiko izan zuenez, langileen oporregatik, egokitzen jo da puntu bat ezartzea, kideek Presidentetzari egoki iritzitako galderak egin diezaioten.



Bertaratutakoei kontsulta egin zaie organo honen hurrengo bilkurari buruz. Oporrak atzeratu dituenek eta oporrak hartu nahiko lituzkeenez, eta, gainera, urriko azken astearen inguruan amaitzeke dauden zenbait jarduketa daudenez, ez da uste lekurik egongo denik bilkura urriaren 20an egingo balitz; beraz, komenigarria litzateke urriaren 28aren inguruan ezartzea, gutxi gorabehera.

Gaia eztabaidatu ostean, bertaratu diren guztiak ados daude urriaren 20an ohiko bilkura egin ez dadin, eta bilkura hori espedienteek ezartzen duten bilakaeraren arabera beharrezkoa den unera eraman dadin, dela urriaren amaieran, dela gai horiek azaroaren 4an egingo den hurrengo ohiko bilkurara igarotzea, eta berri hori gainerako batzarkide talde politikoei helaraztea gomendatu da.

Eta beste gairik ez dagoenez, eta legealdi honi dagokion azken formaltasuna beteta, legez bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **13:55ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA: ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

IDAZKARIA: VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**